

DIRU ITURRAK

Gure enpresak eskuratuko dituen diru sarrerren gehiengoa publizitate izango da. **Musikarien publizitatea** egingo dugu zehazki.

Alde batetik, **artista ezezagunak** ezagutarazteagatik ordainduko digute, bezeroei haien abestiak gomendatuko baitizkiegu, baldin eta beraien gustuekin eta sentimenduekin/egunerokoarekin bat datozen. Horrez gain, artista hauen publizitzeko anuntzioak ere sar daitezke.




Bestalde, **artista ezagunen** abesti, album eta kontzertuak ezagutaraziz ere dirua eskuratuko dugu. Artista guzti hauek mundu mailako artistak izango lirateke.

Nola egingo genuke publizitate hau?

Erabiltzaile bakoitzari **app-a irekitzerakoan**, leiho bat irekiko zaio guk kontaktatutako artistaren albuma, abestia edota gira publizitatzeko.

Abestia edo albuma publizitatzeko garaian, horiekin batera behean kanta/album horretan nabarmentzen diren sentimenduak agertuko dira, horrela sentitzen bazara edo abestiak erakartzen bazaitu, abestia entzutera joateko.

Abesti berria, album berria, eta gira publizitatzeko, abestiaren edota diskoaren **argazkia** klikatzerakoan zuzenean abestiak spotify, youtube edota apple music-en entzun ahalko dira, eta gira izatekotan, honetarako sarrerak erosteko link bat egongo da.



Azkenik, osasun mentala hobetzearen alde egiten duten enpresen **diru-laguntza** edota pertsona independenteen laguntza edo donazioak ere lortu ahalko genituzke, enpresaren helburua zuzenki lotuta baitago osasun mentalarekin.

DIRU SARREREN ITURRIAK	DIRU SARRERA	GUTXI GORABEHERAKO PORTZENTAIA
Artisten pubizitatea (Euren abesti berri, gira eta disko berrien iragarkiak).	*Hurrengo taulan	%95
Elkarte eta pertsona ezberdinen donazioak. ↳ Pertsona indibidualei dagokienez, sare sozialetan jarraitzaileak animatuko genituzke haien donazioak egitera osasun mentaleko arazoei aurre egiteko. Horretarako, <i>GoFundMe</i> plataforma erabiliko genuke erraza, azkarra eta eroso delako. Izan ere, esteka batekin edozeinek eman dezake nahi duena.	Hilabetearen/elkartearen arabera.	%5

Aplikazioa **miloi bat deskargetara** iristerakoan artisten publizitateagatik lortuko genituzkeen **diru-sarreraren estimazio** bat egin dugu taula honetan.

ARTISTAREN POPULARTASUNA	ABESTI BERRIENGATIK PUBLIZITATEA	DISKO BERRIENGATIK PUBLIZITATEA	GIRENGATIK PUBLIZITATEA
ARTISTA BERRIA	1000-5000€	5000-10000€	2000-8000€
LEKUKO ARTISTA	5000-10000€	10000-20000€	8000-15000€
ESKUALDEKO ARTISTA	15000-30000€	20000-50000€	15000-30000€
ARTISTA NAZIONALA	30000-100000€	50000-150000€	30000-100000€
ARTISTA INTERNAZIONALA	100000-1000000€	150000-1000000€	100000-1000000€